

# ANTOLAKUNTZARI BURUZKO ARGIBIDEAK

## JARDUERA BEREZIEI BURUZKO ARAUAK

1. Urteko programan onartutako jarduera osagarriak, curriculum-garapenaren zati direnez, derrigorrezkoak izango dira.

## AZTERKETEI BURUZKO ARAUAK

Azterketa, kontrolak, lanak... planifikatuta dauden egunean egingo dira; bakarrik ezusteko kasuetan errepikatu ahal izango dira edota bigarren aukera bat izango da. Egoera berezietan, ikasleak eskolara etortzerik ez badu (gaixo jarri delako edota beste arrazoi esanguratsua medio), modu honetara jokatu da:

- Beranduenera jota, egun horretan bertan gurasoak harremanetan jarri behar dira irakaslearekin egoeraren berri emateko; horrela eman ezean azterketa egiteko aukera gal lezake.
- Ikastetxera bueltatzen den egunean irakaslearekin harremanetan jarriko da ikaslea hutsegitearen arrazoiak argitzeko (medikuaren agiria; gutxienez, etxekoa); horrela eman ezean azterketa egiteko aukera gal lezake.
- Irakasleak mintegiak adostutako irizpideen arabera zehaztuko dio ikasleari froga berririk egingo zaion, eta baieztatu kasuan noiz eta nola izango den.

- **Azterketen erreklamazio prozedura:**

Gurasoek azterketa bat ikusi nahi dutenean edo azterketaren kopia bat eskuratu nahi dutenean jarraitu beharreko prozedura.

1. Eskara orria tutoreari eskatu eta tutoreari eman beteta
2. Dagokion irakasleak azterketa erakutsiko dio eskatzaileari, irakaslea eta tutorea aurrean direlarik.
3. Azterketa ikusi ondoren fotokopia eskuratu nahi izanez gero eman.
4. Eskara orri hori zuzendaritzan gordeko da.

**EPEA:** Ebaluazioari dagozkion azterketa eta frogak eskatzeko epea ebaluazioa bukatu eta hamabost egun artekoa izango da.

# IKASLEEI DAGOZKIEN ANTOLAKUNZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK

## IKASLEEN PARTAIDETZAZ

1. Ikasleren partaidetza-organoa kurtsoko ordezkarien batzordea izango da. Honen kide izango dira kargu honetarako hautatutako kurtsoko ordezkari guztiak, eta ikastetxeko ikasleen Elkarte bakoitzeko ordezkari bat.
2. Ordezkarien batzordeak taldeko elkarbizitza, eskola-jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan antolatutako eta ikastaldearen martxa orokorrari dagozkien gaiak eztabaidatu eta proposamenak egingo ditu, eta Ikasketa-buruaren bitartez dagokion organora helaraziko ditu.
3. Ordezkarien Batzordea bilduko da; halaber, Ikasketa-buruak deialdia egiten duenean edo Eskola Kontseiluko ikasleriaren ordezkariak edo kurtsoko ordezkarien herenak eskatzen dutenean.
4. Ordezkariak eta ordezkariordeak talde bakoitzeko ikasleek ikasturteko lehen hilabetean hautatuko dituzte.
5. Elkarbizitzari edo taldearen eskola-jardunari buruzko gaiei dagokienez, kurtsoko Ordezkariak solaskide funtzioak beteko dituzte tutorearen edo edozein irakasleren aurrean, taldearen izenean.
6. Kurtsoko Ordezkariak Batzarrerako deialdia egin ahal izango dute informazioa bildu, iritziak eskatu edo proposamenak jasotzeko, elkarbizitza-arauetan ezarritako arauak, Ikasketa-buruaren oniritzia izanik.
7. Bost minutu igaro ondoren irakaslea agertzen ez bada, ikasleen ordezkariak zaintzako irakasleari jakinaraziko dio.
8. Ikastetxeko Urteko planean jasotzen diren zenbait proiektu esanguratsutako batzordeetan parte-hartzeko gelako ordezkariak hautatuko dira: Ingurumena, Agenda 21, Hizkuntza normalizazioa, Elkarbizitza...

# IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

## 1.- IKASLEEN ESKUBIDEAK

1. Hezkuntza integrala izateko eskubidea.
2. Arreta berehala jasotzeko; ebaluazio objektiboa izateko; orientaziorako eta informazioa jasotzeko eskubidea.
3. Intimitatea babesteko; osotasun, nortasun eta duintasun pertsonalerako; aukera berdintasunerako eta gizarte babeserako eskubidea.
4. Biltzeko, elkartzeko eta parte hartzeko eskubidea.
5. Kontzientzi askatasunerako eta idatzizko adierazpen askatasun eskubidea.
6. Ikasleen eskubideak errespetatzen diren bermea.

## 2.- IKASLEEN BETEBEHARRAK

1. Ikasteko betebeharra.
2. Prestakuntza jardueretan parte hartzeko betebeharra.
3. Bertaratzeko betebeharra.
4. Elkarbizitza errazteko betebeharra.
5. Norberaren kontzientzia askatasuna errespetatzeko betebeharra.
6. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.
7. Instalazioak zaintzeko betebeharra.

## 3.- ELKARBIZITZA ARAUAK EZ BETETZEA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Elkarbizitzako arauak ez betetzea, beti gutxienez, jokabide desegokitzat hartuko da. Elkarbizitza hausten duten jokabideak, beti berehala, irakasleak zuzenduko ditu; ondoren, dagokion prozedura jarraitu arren. Hutsegite hori elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da, hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten badie; edo elkarbizitzari kalte larria eragiten diona, haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira. Azken bi kasu hauetan, zuzendaritzak hartuko ditu dagozkion neurri zuzentzaileak.

Neurri zuzentzaileak, ahal den neurrian, hezitzaileak izango dira, proportzionaltasuna zainduko dute eta adiskidetzea izango dute helburu.

JOKABIDE DESEGOKIAK	NEURRI ZUZENTZAILEAK
Justifikatu gabeko puntualtasun eta bertaratzte hutsegiteak.	<p>-Irakasleek justifikatu gabeko hutsegiteak koaderno digitalean, edo INIKAN erregistratuko dituzte tutoreari jakinaraziz.</p> <p>-Tutoreak ikaslearen klasera ez etortzearen berri emango die gurasoei edo legezko tutoreei</p> <p>- Justifikatu gabeko hutsegitetzat hartuko dira ondorengoak:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Justifikazio idatzirik ez dagoenean.</li><li>• Ikaslea hainbat aldiz jarraian falta denean behin eta berriz eta gurasoen justifikazioa bakarrik dagoenean eta ez mediku txostenik.</li><li>• Ikaslea hainbat aldiz jarraian azterketara etortzen ez denean eta gurasoen justifikazioa bakarrik dagoenean eta ez mediku txostenik.</li><li>• Asteko egun batean hutsegiteak egiten direnean eta gurasoen justifikazioa bakarrik dagoenean eta ez mediku txostenik.</li><li>• Gurasoek pisu gutxiko justifikazioak argudiatzen dituztenean (lotan geratzen direnean, ikasten geratzen direnean, oportetara joan direnean...)</li><li>• Hutsegitea justifikatzeko erabilitako eredu egokia ez denean.</li></ul> <p>- 3 berandutze egiten baditu astean tutoreak gurasoei jakinarazi egingo die.</p> <p>4.berandutzea hilabeteko epe barruan eginez gero, I. eranskina beteko da koaderno digitala erabiliz.</p>
Ikastetxeko edo bertako edozein kideren materialari narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.	<p>-Zerbait txikitzen bada, erabilera desegokiarengatik, egin duenak ordainduko du. Zein izan den jakin ezean, klase osoa izango da erantzule.</p> <p>-klase bateko txikizioak beste klase bateko ikasleek eragingo balituzte, honen berri tutoreari emango zaio, honek Ikasketa-buruari adieraz diezaion.</p> <p>-Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie.</p> <p>-Berrero errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>

<p><b>Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea.</b></p>	<p>-Ikasleari adierazi behar zaio irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa derrigorrez bete behar duela.</p> <p>-Betetzen ez duenean, agindu emaila eta ikaslea bilduko dira eta gertatutakoaren inguruan hausnarketa egingo dute. Bilera ez da edozein unetan, edozein lekutan eta edozein modutara egingo. Bakoitzak bere ikuspegia azaldu beharko du eta adostasun batera iristen saiatuko dira.</p> <p>-Tutoreari bileraren berri emango zaio.</p> <p>- I. eranskina bete</p> <p>-Bileraren ondoren egoera errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>
<p><b>Hezkuntza komunitateko kideen aurkako adeitasunik eza adierazten duten jarrera, keinu edo hitzak.</b></p>	<p>- Dagokionari barkamena bihotzez, modu pribatuan edo/eta modu publikoan (egoera baloratu ondoren), eskatuko dio.</p> <p>-Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie.</p> <p>- I. eranskina bete</p> <p>-Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>
<p><b>Debekatutako ekipoak, materialak edo aparatuak ikastetxera eramatea.</b></p>	<p>-Ikaslea ohartarazi.</p> <p>-Errepikatzen denean, dagokion gailua ikasleari eskatuko zaio zuzendaritzan entregatu ahal izateko.</p> <p>- Ikasleak gailua zuzendaritzatik jaso ahal izateko, horretarako prestatutako idatzia ekarri beharko luke, gurasoek edo legezko ordezkariak sinatuta.</p> <p>-Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie.</p> <p>-Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>
<p><b>Ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.</b></p>	<p>-Ikaslea ohartarazi</p> <p>- I. eranskina bete</p> <p>-Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie.</p> <p>-Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>
<p><b>Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea.</b></p>	<p>-Egindako kalteak eragindako egoera argitu.</p> <p>- Ikaslea ohartarazi.</p> <p>-Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie.</p> <p>- I. eranskina bete</p> <p>-Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>
<p><b>Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea.</b></p>	<p>-Azterketa, proba edo ariketa hori automatikoki gainditu gabe geratuko da.</p> <p>-Egoeraren inguruko hausnarketa egin beharko du ikasleak, zintzotasun akademikoaz jokatzeko, esfortzu pertsonalerako eta baimendutako materiala, soilik, erabiltzeko beharra ikusiz.</p> <p>-Egoera errepikatuko balitz, ikasgai berean eta ikasturte berean, ikasgaia, kurtso osorako, gainditu gabe geldituko litzaioke. Ez luke ikasgaia ohiko deialdira arte berreskuratzeko aukerarik izango.</p> <p>-Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>
<p><b>Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea.</b></p>	<p>-Sartzeko baimenik ez dutenak berehala kanporatuak izango dira.</p> <p>-Ikasleak egindakoaren inguruan hausnarketa egin beharko du.,</p> <p>-Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie, egoerak horrela eskatzen badu.</p> <p>- I. eranskina bete, egoerak horrela eskatzen badu</p> <p>-Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>
<p><b>Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.</b></p>	<p>- Dagokionari barkamena bihotzez, modu pribatuan edo/eta modu publikoan (egoera baloratu ondoren), eskatuko dio.</p> <p>-Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie, egoerak horrela eskatzen badu.</p> <p>- I. eranskina bete, egoerak horrela eskatzen badu</p> <p>-Berriro errepikatzen denean, elkarbizitzaren kontrako jokabidetzat hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>

<p><b>Mugikorra eta antzeko tresnak egoitza barruan, baimenduta dauden zonaldeetatik kanpo, itzalita eta gordeta ez edukitzea, irakaslearen berariazko baimenik izan ezean.</b></p>	<p>- Ikasturte hasieran jakinarazi bezala, mugikorra ikasgelan irakaslearen baimenik gabe, erabiltzea debekatuta dago.</p> <p>- Egoera honetan irakasleak ikasleari tresna eskatuko dio zuzendaritzan entregatu ahal izateko.</p> <p>- <b>Hurrengo egunean (inoiz ez egun berean),</b> ikasleak tresna zuzendaritzatik jaso ahal izateko, horretarako prestatutako <b>idatzia</b> ekarri beharko du gurasoek edo legezko ordezkariak sinatuta.</p> <p>- Egoera berriro errepikatuko balitz bizikidetzaren aurkako jokabideetat hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p> <p>- Ikasleak tresna entregatu nahi ezean, bizikidetzaren aurkako jokabideetat hartuko da.</p>
<p><b>Eskola-eremua zikintzea.</b></p>	<p>-Zikindutakoa garbitu egin beharko du ikasleak. Ezin bada, egoera konpontzeak suposatutako gastua ordaindu beharko du.</p> <p>-Egoera errepikatuko balitz, eskola-eremuari dagokion zatiren bat garbitu beharko du ikasleak.</p> <p>- Berriro errepikatzen bada I. eranskina bete</p> <p>- Gurasoei edo legezko tutoreei gertatutakoaren berri emango zaie. Faktura pasatuko zaie horrela badagokio.</p> <p>-Egoera berriro errepikatuko balitz, bizikidetzaren aurkako jokabidea bezala hartuko da eta ikaslea zuzendaritzara bideratuko da.</p>
<p><b>Norberaren betebeharren beste edozein ez betetzea, bizikidetzaren kontrako jokabideak ez badira edo bizikidetzari kalte larria eragiten ez badiote.</b></p>	<p>-Dekretuak adierazten duen moduan, neurri zuzentzaileak egindakoaren inguruko hausnarketa, onarpena dagokionaren aurrean, egindakoarekin lotura duen ekintzaren bat eta, ahal den neurrian, egindakoaren konponketa bilatuko du.</p>

<p style="text-align: center;"><b>4.- JANGELA ETA GARRAIOA</b></p>	
<p style="text-align: center;"><b>GARRAIOA</b></p>	<p style="text-align: center;"><b>ARAU OROKORRAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeko geltokian autobusa galduz gero, zuzendaritzan jakinarazi.</li> <li>• Jatorrizko herriko geltokian autobusa galduz gero, gurasoei abisatu.</li> <li>• Jatorrizko herriko geltokira autobusa ordurako iritsi ezean, ikastetxera deitu eta geltokian itxaron.</li> <li>• Autobusera garaiz, lasai, era ordenatuan, bultza egin gabe eta behar den bezala sartu eta atera.</li> <li>• Autobuseko kide guztiak errespetuz tratatu (gidaria nahiz beste ikasleak)</li> <li>• Bakoitza dagokion lekura joan eta bertan eseri.</li> <li>• Eserlekua nahiz autobuseko edozer zaindu eta ez hondatu.</li> <li>• Ez jan eta ez edan.</li> <li>• Ikasleren batek inoiz autobus zerbitzu beharrik izan ezean tutoreari jakinarazi, horretarako prestatuta dagoen inprimakia eskatu eta betez.</li> </ul>
	<p style="text-align: center;"><b>HUTSEGITE LARRIAK</b></p> <p><b>HUTSEGITE OSO LARRITZAT JOKO DITUGU HONAKO HAUEK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Gidaria nahiz beste ikasleak ez errespetatzea.</b></li> <li>• <b>Eserleku nahiz autobuseko edozer hondatzea, puskatzea edo zikintzea.</b></li> <li>• <b>Borrokan aritzea.</b></li> <li>• <b>Behin eta berriz arauak haustea.</b></li> </ul> <p>Autobusean egindako hutsegiteen berri tutoreari eta elkarbizitza taldeari emango zaio dagozkion neurriak hartzeko.</p> <p>Hutsegite larrien kasuan, elkarbizitza taldeak erabakiko ditu ondorioak: <b>aste batean edo betiko autobus zerbitzua galtzea.</b></p>
<p style="text-align: center;"><b>JANGELA</b></p>	<p style="text-align: center;"><b>ARAU OROKORRAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jangelara garaiz, lasai, era ordenatuan, bultza gabe eta behar den bezala sartu.</li> <li>• Jangelako kide guztiak errespetuz tratatu (irakasle, ikasle, zerbitzari ...). Jangelako zaintzaileen eta arduradunen esana bete egin behar da.</li> <li>• Zuzenean, batera eta bestera ibili gabe, bakoitza, dagokion lekura joan eta bertan, eserita, bazkaltzeko prest jarri.</li> </ul>

- Jangelan garrasi egin gabe hitz egingo da.
- Debequatuta dago elkarri ura edo janaria edo beste ezer botatzea. Jangelatik inongo janaririk ezingo da atera.
- Bazkaldu eta gero ezin da ez altxatu, ez jangelatik irten, mahai bakoitzaren begiraleak baimena eman arte. Zaintzaileek irteteko baimena emandakoan dagokien atetik atera behar dira patiora.
- Bazkari garaian komunera joateko, zaintzaileei baimena eskatu behar zaie.
- Lurra eta mahaia garbi eta txukun mantendu behar dira; eta mahai tresnak zaindu behar dira.
- Ikasleren batek inoiz jangela zerbitzu beharrik ez balu jangelako arduradunari jakinarazi beharko diote bere gurasoek.
- Bazkaltiarrek hiru hutsegite arin pilatzean, jokabide desegokitzat hartuko da eta jangelako arduradunak neurri zuzentzaileak jarriko dizkie.

#### HUTSEGITE LARRIAK

##### HUTSEGITE OSO LARRITZAT JOKO DITUGU HONAKO HAUEK:

- Ogia edo janaria batak besteari edo lurrera botatzea.
- Ogia edo beste ezer ur ontzira botatzea.
- Txerrikeriak egitea.
- Beste guztiak (irakasle, zerbitzari edota gainerako ikasleak) ez errespetatzea.
- Borrokan aritzea.
- Behin eta berriz arauak haustea.

Jangelan egindako hutsegiteen berri tutoreari emango zaio jakitera. Jangelako irakasle arduradunek ondorengo neurri hauek hartuko dituzte behar izanez gero: **Jangelan erratza pasarazi; bakarrik bazkalarazi; beranduago bazkalarazi ...**

**Hutsegite larrien kasuan** jangelako arduradunek, tutorearekin eta zuzendaritzakoekin batera erabakiko dituzte ondorioak: **egun batean, aste batean edo betiko jangelako zerbitzua galtzea.**

## 5.- HAUSPOA

Ikasleak bere betebeharrak eta ikastetxeko arauak betetzen ez baditu, Hauspoa jardueretan geratzeko aukera gal dezake

## 6.- EKIPO INFORMATIKOEN ARAUTEGIA

Informatika gelen eta Eskola 2.0 ordenagailu txiki eramangarrien erabilera.

#### ARAU OROKORRAK

- Ez eutsi ekipoari pantailatik, eta ez kolpatu edo arrastorik egin inolako objektuekin.
- Ez manipulatu ekipoko inolako elementurik.
- Ez instalatu ikastetxeak baimendu gabeko jolas, programa edo edukirik.
- Agindutako eskola-lanei loturiko informazioa baino ez gorde ekipoan.
- Ez sartu zure adinerako baimenduta ez dauden baliabideetan eta, bereziki webguneetan.
- Ordenagailu txiki eramangarriak beti zorroan behar bezala gordeta eraman.
- Ordenagailu txiki eramangarriaren bateria kargatzen utzi behar denean, dagokion lekuan utzi.
- Ikasleak eragindako material edo hausturak ordaindu.

## 7.- CHROMEBOOKAK

- Guztiz debequatuta dago Chromebooka beste norbaiti uztea, alokatzea edota beste pertsona batzuekin partekatzea.
- Ezinbestekoa da Chromebooka zaintzea eta mantentzea.
- Chromebooken bateriak beti kargatuta egon behar du. Ezinbestekoa izango da etxetik bateria ondo kargatuta ekartzea.
- Gelan Chromebooka behar bezala gorde behar da, atsedean ordua iristen denean takilan sartu eta kandaduaz itxi.
- Chromebooka erabiltzen ez bada saioaren batean eta gelatik kanpo ematen bada saio hori, Chromebooka takilan kandaduaz itxita gorde behar da.